

2025EKO AZAROAREN 17KO **TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko azaroaren hamazazpian, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaraturako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturakoen onespenera aurkeztu da 2025eko urriaren 20an eta azaroaren 3an egindako ohiko bilkurako aktak, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- FAKTURAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2025eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 86 zenbakidun zerrenda, EHUN ETA HOGEITA BAT MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA HAMAHIRU euro ETA LAUROGEITA HAMAHIRU zentimokoa (121.333,93 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 11-11-05 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua handitzea azaroaren 7tik aurrera, astean 4 orduetik 17 ordura, denboraldi batez. Onuradunaren ekarpena %35ekoa izango da.
- 23-11-10 zenbakidun esped.: 2025eko azaroaren 8an baja etxeko laguntza zerbitzuan heriotzagaitik.
- 24-11-11 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua murriztea abendutik aurrera, astean 6 orduetatik 4 ordura. Erabiltzailearen ekarpena %100 a da.
- 25-11-02 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua handitzea urriaren 23tik astean 2 orduetik 4 ordura. Erabiltzailearen ekarpena %2 a da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 23-01-016 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako diru laguntzari baja ematea abendutik. Erabiltzailearen heriotzagatik.
- 22-01-015 zenbakidun esped.: alokairuko gastuetarako 235€-ko diru laguntzari baja ematea otsailetik apirilera. Bateragarria ez den beste diru laguntza bat jaso duelako.
- 24-01-003 zenbakidun esped.: alokairu gastuetarako hilean 160€ko diru-laguntza ematea uztailetik abendura. Eman diatekeenaren %64 da.
- 25-01-003 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 100,5€ko diru laguntza ematetik 91,5€ko laguntza ematera pasatzea azarotik abendura. Eman diatekeenaren %67tik %61era jaisten da bizikidetzaren unitatean aldaketak egon direlako.
- 25-01-009 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 150€ko diru laguntza ematetik 121,5€ko laguntza ematera pasatzea irailetik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 250€ko diru laguntza ematetik 202,5€ko laguntza ematera pasatzea irailetik abendura. Eman diatekeenaren %100tik %81era jaisten da bizikidetzaren unitatean aldaketak egon direlako.

Gizakia Helburura joateko garraiorako dirulaguntzak.-

- 25-14-01 zenbakidun esped.: urrian Gizakia Helburura egin dituen garraio gastuak ordaintzeko, 300,00 €ko diru laguntza ematea.

Joxemiel Barandiaran Udal kiroldegiko bazkidetza eta jarduerengatik ordaindu beharreko tasak ordaintzeko laguntza ematea.-

- 25-23-03 zenbakidun esped.: igeritketa ikastaroa ordaintzeko 66,70 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.
- 25-23-04 zenbakidun esped.: igeritketa ikastaroa ordaintzeko 66,70 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.
- 25-23-12 zenbakidun esped.:
 - o Kiroldegiko urteko bazkidetza familiarraren bonua ordaintzeko 215,20 €-ko dirulaguntza ematea.
 - o Igeritketa ikastaroa ordaintzeko 66,70 €-ko dirulaguntza ematea.

Eskatutakoaren % 100 da.

- 25-23-13 zenbakidun esped.: igeritketa ikastaroak ordaintzeko $66,70 \times 2 = 133,40€$ €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.

- 25-23-14 zenbakidun esped.: igeritketa ikastaroa ordaintzeko 66,70 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.

IV.- KULTUR ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeburuak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Jundajo Txarangari.-

Jundajo txarangaren eta Udalaren artean izenpetu zen hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, 5.000 €-ko dirulaguntza ematea aurreikusi zen.

Orain, ordaintzeko falta den %40, hau da 2.000 €, ordaintzea onartu da.

Dirulaguntza 2025eko aurrekontuaren 481.02.334.00 partidatik ordainduko da.

San Migeletako Sagardo dastaketa egunean 3 txarangen bilkura antolatzeagatik 2.093,12 € ordaintzea onartu da.

Dirulaguntza 2025eko aurrekontuaren 481.02.334.00 partidatik ordainduko da.

Lazkaoko Musika Bandari.-

Lazkaoko Musika Banaren eta Udalaren artean izenpetu zen hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, 5.000 €-ko dirulaguntza ematea aurreikusi zen.

Orain, ordaintzeko falta den %40, hau da 2.000 €, ordaintzea onartu da.

Udako kontzertua antolatzeagatik 2.000 € ordaintzea onartu da.

Lazkaoko Musika Bandari udako kontzertua antolatzeagatik 2.000,00 € ordaintzea onartu da.

Portada lehiaketa 2026.-

2026ko jaietako programako portadarako egingo den lehiaketarako sari ordainaren onarpena.

Betebeharreko oinarriak eta saria 200 €tako izatea onartzen da.

Antzar konpartsari.-

Antzar konpartsaren eta Udalaren artean izenpetu zen hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, 5.000 €-ko dirulaguntza ematea aurreikusi zen.

Orain, ordaintzeko falta den %40, hau da 2.000 €, ordaintzea onartu da.

Dirulaguntza 2025eko aurrekontuaren 481.10.334.00 partidatik ordainduko da.

Goierriko Komunikabideei.-

Goierriko Hitzari eta GITBri bakoitzari 6.055 € ordaintzea onartu da, dagokion dirulaguntzaren 2.go zatia.

V.- KIROL ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kirol eta gazteriako zinegotziak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honakoa erabaki du:

Zaguperi.-

Zaguperen eta Udalaren artean izenpetu zen hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, 9.000 €-ko dirulaguntza ematea aurreikusi zen.

Orain, ordaintzeko falta den %40, hau da 3.600 €, ordaintzea onartu da.

Ikullu Razing.-

Ikullu Razingen eta Udalaren artean izenpetu zen hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, 5.000 €-ko dirulaguntza ematea aurreikusi zen.

Orain, ordaintzeko falta den %40, hau da 2.000 €, ordaintzea onartu da.

VI.- EKONOMIA SUSTAPEN ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jarduerari dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Merkatarik bonoengatik.-

Lazkaoko merkataritza sustapenerako Lazkaoko Udalak 2025eko urrian martxan jarritako udazkeneko erosketa bonoen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik jasotako bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei bigarren ordainketa egitea.

Guztira 4.465,00 €

VII.- LANDA EREMU ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Landa Eremuko batzordetik baserritar ekoizleei dirulaguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Baserritar ekoizleei bonoengatik.-

Lazkaoko baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2025eko maiatzean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat baserritarrek jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien baserritarrei bostgarren ordainketa egitea.

Guztira 342,86 €

VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Joxemai. Udalaren megafonia ekipoari buruzko galdera, hondatuta dago.

Amagoia. Balorazioa egin da eta bigarren aldia da hondatzen dela. Baloratzen ari direla zer egin. Agian txiki bat erostea, 600€ inguru.

Alkatea. Erosi egin beharko dela azkenean. Mikeli galdetzeko ze epe ematen dioten konpontzeko.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta berrogei direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.